

## **8. EMAGINAK ETA GARAI BATEKO ERDITZEAK**

### **Denak etxeetan jaiotzen zineten, ez?**

Denak. Denak, bai.

### **Bazegoen emaginik?**

Bai, bai. Zuen senitartekoa zen Lakuntzan, Lakuntzan bizitzen zen emagina, Elbira, bai. Orain semea hil zaie, bai. Akordatu nintzen zuetaz, e? Zeren senitartekoak izaten ziren zuen amarekin, Anttonenarekin, bai eta haren ama ibiltzen zen. Gero beste bat bazegoen e... Jonaneko Maria Jesusen amona, pues horiek ibiltzen ziren a la buena de Dios, dena ongi ateratzen zen.

### **Zuek etxean eduki zenituzten edo zuek ja amaetxera?**

Ez... A! Guk? Guk? Guk?

### **Bai.**

Bai, amaetxean denak, e? Denak amaetxean.

### **Zure belaunaldia ja izan zen... ja gutxi gorabehera aldatu zena??**

Bai. Bai, bai, bai, aldatu zen. Aldatu zen, bai, bai, bai, bai. Osea que etxean jaiotzen zirenek badakizu, garbitasunean ere, pues e... kontua eduki behar zenuen. Eta gero jendea hasi zen pixka-pixka Iruñera, Iruñera amaetxera eta, pues hola izan genituen. Bi batera eduki nuen, eduki nituen eta, gero beste lñigo hau, Lizarran dagoena, pues oi, pues que si de un asfixio, no asfixio, hola gelditu zen. Eta horrela konpondu gara. Bai.